

## **Enplegua Sustatzeko 2016ko deialdiko Tokiko Ekintzentzako Laguntzen barruan Lanbidek-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako Kontrataziorako Laguntzak**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren biam egindako bileran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

LEHENENGOA.- Ondoren aipatzen diren zenbatekoetako kontrataziorako diru-laguntzak ematea honako enpresei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko tokiko ekintzentzako ematen dituen diru-laguntzen deialdiaren barruan, kontuan izanda Enplegu eta Toki Garapenerako Agenteak 2017ko apirilaren 18an egindako txostena, zeinaren hitzez hitzeko kopia bidaliko den:

- C.F. SOMORROSTROri 9.000 euroko diru-laguntza.
- PROYECTOS Y CONSTRUCCIONES EDIKON, S.L.ri 3.833,33 euroko diru-laguntza.
- GESTIONES AIO, S.L.ri 2.825,00 euroko diru-laguntza.
- PELUQUERIA AINHOAri 3.000,00 euroko diru-laguntza.
- CONTEMA, S.A.ri 6.000,00 euroko diru-laguntza.
- EMPRESA CONSTRUCTORA URBELAN, S.A.ri 4.733,33 euroko diru-laguntza.

Diru-laguntzaren %100a jasotzeko, erakunde onuradunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute, gehienez bi hilabeteko epean subentzionaturiko ekintza amaitzen denetik, eta beti ere, 2017ko uztailaren 15a baino lehen, aipatu laguntzak arautzen dituzten oinarrien 15. artikuluan aipatzen diren agiri guztiak. Oinarri horiek abenduaren 12ko 268/16 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu ziren eta 2016ko abenduaren 22an argitaratu ziren 242 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

BIGARRENA.- Ez ematea kontrataziorako laguntzarik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko tokiko ekintzentzako ematen dituen diru-laguntzen deialdiaren barruan, ondoren aipatzen diren enpresei, ez dutelako betetzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak oinarrietan eskatzen dituen gutxieneko portzentajeak, emakume eta 55tik gorakoei dagokienean, kontuan izanda Enplegu eta Toki Garapenerako Agenteak 2017ko apirilaren 18an egindako txostena, zeinaren hitzez hitzeko kopia bidaliko den:

- ARITZEDER BERIBILAK, S.L.ri
- YAQ'S GLOBAL SERVICES, S.A.ri
- SOLVENTIC SOLUCIONES EFICIENTES, S.L.ri

HIRUGARRENA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko tokiko ekintzentzako ematen dituen diru-laguntzen deialdiaren barruko kontrataziorako laguntzak ukatzea ondoren aipatzen diren enpresei, ez dituztelako betetzen oinarrietan ezarritako eskakizunak, kontuan izanda Enplegu eta Toki Garapenerako Agenteak 2017ko apirilaren 18an egindako txostena, zeinaren hitzez hitzeko kopia bidaliko den:

- AURRERA ONDARE, S.L.ri
- PROYECTOS Y CONSTRUCCIONES EDIKON, S.L.ri
- PELUQUERIA AINHOAri

LAUGARRENA.- Interesdunei jakinaraztea erabaki hau, udal teknikariaren txostenaren kopiarekin batera, eta jendaurrean jartzea, iragarkia argitaratuz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta udaleko webgunean.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2017ko maiatzaren 4an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra

